

Leioa, 2013ko maiatzaren 31.

ARRISKU PSIKOSOZIALEN EBALUAZIOAREN HASIERAKO EMAITZAK

Lankidea:

Arrisku psikosozialei buruzko galdera sorta betetzeko epea **2013ko apirilaren 30ean** bukatu zen. Horrekin batera proiektuaren lehenengo fasea bukatu zen eta orain, emaitzak interpretatu eta prebentzio neurriak adostu behar dira.

Guztira 2033 galdera sorta jaso ditugu, eta horrek esan nahi du UPV/EHUko langileen %27,7k parte hartu duela. Eskerrik asko parte hartu duzuen guztioi.

Galdera sorten datuak gurekin lankidetzan diharduen SGS TECNOS kanpoko enpresak tratatu ditu. Enpresa horrek Campusarteko Segurtasun eta Osasun Batzordeari aurkeztu zizkion [emaitza orokorrak](#) 2013ko maiatzaren 8an eta orain, emaitza horiek aztertu egin behar dira.

Ondorengo taulan gorritz agertzen dira erreferentziazko biztanleriarekin alderatuta negatiboak diren alderdiak, berdez positiboak direnak eta urdinez antzekoak direnak.


Galdera sorta Guztira UPV/EHU 2033
Garapenerako posibilitateak
Eskaera psikologiko kognitiboak
Konpromisoa
Erlazio sozialerako posibilitatea
Eragina
Eskurako denbora-tarteen kontrola
Langileen laguntza soziala
Taldeko zentzua
Lanaren zentzua
Sentimenduak izkutatu
Rol-argitasuna
Estimua
Nagusien laguntza soziala
Etorkizunarekiko segurtasun gabezia
Rol -gatazka
Eskaera psikologiko kuantitatiboak
Lidergo kalitatea
Eskaera psikologiko emozionalak
Aurreikusia
Presentzia bikoitza



Erreferentziazko biztanleriaren baino emaitza hobekak

Erreferentziazko biztanleriaren baino emaitza okerragoak

Puntuaciones de todas las exposiciones psicosociales de UPV/EHU



Zirkulu gorria: unibertsitatearen egoera erreferentziatzko biztanleriarena baino okerragoa da.

Karratu berdea: unibertsitatearen egoera erreferentziatzko biztanleriarena baino hobea da.

Triangelu urdina: unibertsitatearen egoera erreferentziatzko biztanleriarenaren antzekoa da.

Iturria: Arrisku psikosozialen ebaluazioari buruzko hasierako txostena. CoPsoQ-istas21 metodologia

Lantaldea datuen azterketa sakona egiten ari da eta gero, azterketa horretan oinarrituta, **prebentzio zirkuluak** nola eratu behar diren ezagutaraziko du, neurri zuzentzaileak zehazteko plantillako kideek parte hartzea beharrezko ikusten den lanlekuetan.

Informazio zabalagoa nahi izanez gero, UPV/EHUren orri nagusian duzu eskuragarri (riesgospsicosociales@ehu.es) edo posta elektronikoz jo dezakezu lantaldearengana (edo arriskupsikosozialak@ehu.es) zure intereseko alderdiez galdetzeko.

Eskerrik asko laguntzeagatik. Adeitasunez,

Arrisku Psikosozialen Ebaluaziorako Lantaldea

LAN INGURUNE OSASUNGARRIA IZAN DEZAGUN, PARTE HARTU!